

Begira

 **ULMA**

2011ko uztaila // 23 zk



aurrez aurre



ULMA Pipingek
Forjas de Lazkao erosi du

erreportajea



ULMA
Construcciónek
Peruko filiala finkatu du



Aurkibidea

23 zk • 2011ko uztaila



> 4



> 9

13 <



> 20

22 <



> 24



> 26

30 <



3 > HIZPIDEA..: Iraganetik orainera etorkizuna eraikiz. **4 > ALBISTEAK ETA GAUR EGUNGO GAIAK:** Saria eskari jasotzaileen modelo berrietarako. ULMA Construccioneen MK Sistema: arrakasta segurua aplikazio bakoitzean. ULMA Handling Systemsek abiadura eta fidagarritasun logistikoa eraman du ABACUsera. **16 > AURREZ AURRE:** Alberto Galdos, ULMA Agricolako gerentea; Angel Sánchez, ULMA Orga Jasotzaileen gerentea. **18 > ERREPORTAJEA:** ULMA Pipingek Forjas de Lazcao erosi du. **20 > ERREPORTAJEA:** ULMA 2.0; partekatzeko proiektua. **22 > ERREPORTAJEA:** ULMA Construccioneek Peruko filiala finkatu du. **24 > ERREPORTAJEA:** ULMA, 50 urte elkarrekin. **26 > ALBISTE OSASUNGARRIAK:** Laneko menu osasungarriak. **27 > ZER DERITZOZU?** **28 > AGENDA ETA IRADOKIZUNAK.**

2011. urte honetan ULMA Taldeak bere 50. urteurrena ospatzen du. Eta gertaera horrek, jakina, ospatzeko arrazoia izateaz gain, lortu denari buruz hausnarketa egiteko aukera ere izan behar du eta, aldi berean, etorkizuneko oinarriak jartzeko, hemendik 50 urtera, guk gaur bezala, ospatzeko gauza asko izango duten pertsonak egongo direla bermatzeko. Gauzak baloratzeko denboraren perspektiba izan behar dugu, bestela iragandako edozein denbora hobea izan zela pentsatzeko akatsa egin baitezakegu, edo ULMA soilik orain ari garenona dela pentsatzekoa. ULMA guztion lanaren eta ahaleginaren emaitza da, egon diren pertsona guztiena eta gaur egun aktiboki parte hartzen jarraitzeko zortea dugunona. Horrenbestez, jakitun izan behar dugu jasotako

hasitako abenturak arrakasta izango zuenik. Apenas zegoen gaur egun ezagutzen ditugun Gainegiturazko Organorik (Euskadiko Kutxa eta Lagun Aro eratu berri zeuden), kooperatibaren figura legala existitzen zen, baina ez zuten egiazko aplikaziorik enpresaren munduan. Barne egitura organiko arina garatu behar zen, funtzionatuko zuena, eta dirua irabazi eta merkatuan lehiatzeko aukera emango zuena. Hasieratik argi egon zen inork ez ziela kooperatibei ezer oparitutako, eta gogor borrokatu beharko zutela lehiakorrek eta errentagarriak izango baziren, dagoeneko ezarrita zeuden lehiakideek baino zerbitzu eta produktu hobek eta merkeagoak eskainiz. Negozioak ez badira lehiakorrek eta errentagarriak, akabo proiektua. Hastapen zail haietan hazkunde handiko faseak

sustatzaileak gidatu zituen espirtu eta filosofia berari eutsiz.

Horrenbestez, arrazoiak ditugu, ugari gainera, efemeride hau ospatzeko, eta oinarriak dauzkagu datozen 50 urteetara baikor begiratzeko, bai horixe, ULMA errealitate sozioenpresarial sendoa baita, etorkizunerako proiektu goranahia eta erakargarria duena. Gure aurrekoek izan zituzten baino askoz zimendu sendoagoak ditugu.

Lehenago egindakoa, ordea, beharrezkoa izanik ere, ez da etorkizuna segurtatzeko nahikoa, eta norberaren buruarekiko gozamina ere ez da bidaide egokia. Gure erronkak eta arazoak dauzkagu, desberdinak, baina inola ere ez ULMAk 50 urte hauetan izan dituenak baino handiagoak.



Iraganetik orainera etorkizuna eraikiz

IÑAKI GABILONDO. ULMA Taldeko Zuzendari Nagusia.

ondare bat kudeatzen ari garela, hurrengoie ondoretzan utzi behar dieguna, ahalik eta baldintzarik onenetan. Mandatu eder hori daukagu, erantzukizun handia ere badena. Denboran egindako bidaia honetan, nola ez, aitzindarietatik hasi behar dugu. Zer pentsatuko lukete ULMAko fundatzaileek egiten ari ziren hura 50 urteren bueltan gaur egun den hau bihurtuko zela? Seguru nago ametsik onenean ere ez zutela imajinatuko. Gizartea eraldatzeko proiektu utopiko batean abiatu ziren, inolako "erreferentziarik" gabe, Arrasaten urte batzuk lehenago hasitakoa izan ezik. Gaur egungoa baino askoz une historiko zailagoa zen, diktadura batekin, sindikaturik gabe, Estatuaren kontrol zorrotzarekin enpresaren jardura guztietan... Hala eta guztiz ere, "enpresaren" kontzeptua aldatu nahi zutela erabaki zuten, eta lana antolatzeko eta enpresaren ekonomia banatzeko modu berri bat sortu. Gaur egun ere, horixe da ULMAren eta Mugimendu Kooperatiboaren muina. Inguruneak gauzak asko errazten ez bazituen ere, ordu arte zeuden egitura edo esperientzia kooperatiboek ere ez zuten segurtatzen

eta krisi larriak tartekatu ziren, eta horiei aurre egin behar izan zitzaie, proiektu soziala mantentzearen eta aldi berean etorkizuna segurtatzearen arteko oreka galdu gabe. Erakutsi ziguten une txarrak erabaki ausartak hartuz eta ilusioz lan eginez gairatzen direla, zerbitzurako bokazioarekin, eskuzabaltasunez eta etorkizuneko ikuspegiz. Gure historian aurreko guztiaren adibide ugari dugu, eta adibide horiek erabakiak hartu aurretik geure burua ikusteko ispilua izan behar lukete. Gaur egungo ULMAra iritsi arteko bidea luzea izan da, eta arrakasta zalantza ezinezkoa da. 600 milioi euro baino gehiago fakturatzen duen Talde bat dugu, mundu osoan diharduten 4.100 pertsona baino gehiagorekin, bere produktua eta zerbitzuak munduko eskualde guztietan saltzen dira eta gure negozioak erreferentzia dira nazioartean lan egiten duten merkatuetan. Bezeroek, hornitzaileak, lehiakideak, belaunaldi berriek eta, oro har, gizarte osoak baloratzen eta errespetatzen duten TALDEA gara, eta haien ULMA proiektu interesgarria eta erakargarria da ibilbide profesionala garatu ahal izateko eta hori guztia aitzindari eta

Bititza egokitu zaigun garaia konplikatua da, baina seguru krisitik indartuta ateratzen garela gure historiak utzi dizkigun ikasgaiak aplikatzen baditugu, konturatzen bagara ez garela enpresa bateko jabeak, administratzaileak baizik, eman zaigun proiektu bat kudeatu eta beste batzuei laga behar diegunak, konturatzen bagara ULMAren ondare ekonomikoa zein ekonomikoa ez dena bizitzan zehar horren alde lan egiten duten guztien emaitza dela eta ez soilik orain gabiltzanona, sinesten badugu guztion arteko elkartasuna eta ez zatiketa dela krisitik azkarrago irteten lagunduko diguna. Finean, etorkizuneko proiektua interes partikularren aurretik jarrita.

Eskerrik asko denoi proiektu zoragarri honetan partaide izateagatik, eta izan dezagun oroitzapen berezia lanean ari ziren bitartean bizia galdu zuten pertsona guztien alde.

Saria eskari jasotzaileen modelo berrietarako

Orain dela bost urte baino gehiago, bere orga kontrapisatuen kalitatean eta fidagarritasunean irudi nabarmena lortu eta gero, ULMAk apustu sendoa egin zuen biltegiko ekipamenduen gama sustatzeko eta berritzeko, eta aplikaziorik berezienei zehatz-mehatz erantzuteko ekipamendu espezializatuen katalogoa lortu zuen. Berritzeko politikari eta bezeroen beharrak ulertzeko dinamikari jarraituz, ULMAk modelo berriak gehitu ditu, biltegi batean egiten diren aplikazio guzti-guztiak modu seguru eta erosoan egiteko diseinatuak. ULMAk eta Mitsubishik merkaturatu duten azken seriea OPB1020NE eskari jasotzaileak dira, apalategietako beheko mailetan dauden produktuak manipulatzeko diseinatu direnak. Modelo horiek duten karga ahalmena 1 T eta 2 T artekoa da, gehienez ere 12 km/h-ko abiadura har dezakete. Modeloak errekonozimendu bikoitza jaso du, izan ere, alde batetik, Erresuma Batuko orga fabrikatzaile eta banatzaileen elkarte independentea den Fork Lift Truck Association elkarteak, urteko ekitaldian, "Ergonomia" saria eman zion OPB20NE eskari jasotzaileen serie berriari, eta "Segurtasuna" saria Mitsubishi markari, beste lehiakide askoren artean nagusituta, horien artean Jungheinrich, Linde, Still, Nissan edo Toyota. Beste alde batetik, OPB20NE serie berriak oso harrera ona izan du merkatuan, eta ULMAk erregistratutako maila baxuko eskari jasotzaileen salmentan % 33 handitzea lortu du, aurreko urtearekin alderatuta. Arrakasta oso esanguratsua da, MEDEA Espainiako orga jasotzaileen banatzaile eta fabrikatzaileen elkartearen arabera, maila baxuko eskari jasotzaileek % 26ko jaitziera izan baitute fakturatutako unitateei dagokienez. Horrelako emaitzek indarra ematen diete ULMAri eta Mitsubishiri orga jasotzaileen segurtasuna, ergonomia eta fidagarritasuna bezalako hainbat alderdi berritzeko eta perfektionatzeko inbertsioen politikarekin jarraitzeko.



ULMA PACKAGINGEK LAU SITE BERRI ATERA DITU HAINBAT HIZKUNTZATAN.

Web lokalak garatzeko anbizio handiko planaren barruan, joan den otsailean ULMA Packaging Brasilen webgune berria argitaratu zen, guztia portugesez, eta georago, maiatzean, Italiakoa atera da italianoz, Frantziakoa frantsesez eta laugarren bat errusieraz, Errusian eta Ukrainan zabalduko dena. Gure gaur egungo bezeroekin zein bezerogaiekin harremanak sendotzeko helburuarekin, webgune hauek sortu ditugu, erabiltzaileen beharrak asetzera zuzenduak erabat, gure enpresari buruzko informazioa azkar eta seguru aurkitu ahal izan dezaten. Bertan nabigatzera gonbidatzen zaitugu, tokiko albisteak zein nazioartekoak aurki baitaitezke, hainbat sektoreri bideratutako aplikazioak, enbasatzeko teknologia desberdinak dituzten ekipamenduak edota ULMA Packagingen unibertsoa osatzen duten nobedadeak. Informazio gehiago gune hauetan: www.ulmapackaging.com.br; www.ulmapackaging.it; www.ulmapackaging.fr; www.ulmapackaging.ru eta www.ulmapackaging.com.ua.



ULMA Taldea

Vicente Ferrer Fundazioak ULMA Taldearen laguntza eskertu du

Vicente Ferrer Fundazioa Anantapurren (India) egiten ari den Garapen Integralerako Programan parte hartzen duten enpresei eskerrak emateko, "Enpresa konprometituak" izeneko marka sortu da. Fundazioaren helburua Indian muturreko pobrezia eta diskriminazioa desagerraraztea da, eta ULMA Taldeak bezala, helburuarekin bat egitea erabaki duten enpresak nabarmentzeko eta eskerrak emateko modua da sortu den marka. Vicente Ferrer Fundazioak Euskadin eta Kantabrian duen ordezkariak, Irune Pascualek,

ULMA Taldeari eskerrak eman nahi izan dizkio, "egunez egun Anantapur aldatzen aurrera egitea ahalbidetzen duen elkartasun sare handi bateko parte izateagatik".

Enpresa Konprometituaren Ziurtagiria

Esker ona bistararazteko, Enpresa Konprometituaren Ziurtagiria bidali dute, ULMA Taldea nabarmentzeko helburuarekin, Vicente Ferrer Fundazioaren konpainia laguntzailea den heinean. Ziurtagiria tresna bat da ULMA Taldeko ingurune osoa enpresa egiten ari den jarduera solidarioan partaide bihurtzeko.



BA AL ZENEKIEN...

ULMAk Abu Dhabin eta Qatarren lehendakariak gidatu zuen misio komertzialean parte hartu zuen. ULMA Hormigón Polímero eta ULMA Pipingeko ordezkariak lehendakariari lagundu zioten, Euskadiko beste 80 enpresarekin batera. Hormigón Polímeroko Export Managerra den Maria Sernak Emirerrien garrantzia nabarmendu zuen, beste merkatu batzuetan sartzeko oinarri gisa. "Gure helburua enpresekin harreman komertzialak egitea da, epe ertaineko etorkizunean lankidetzan aritu ahal izateko". ULMA Pipingek oso balorazio positiboa egin zuen, misio honi esker bertako ADNOC petrolio enpresako zuzendaritzak konpromisoa hartu baitzuen sektoreak Euskadin dituen enpresak bisitatzeko.

ULMA Hormigón Polímero

ULMA Hydro kanalak Madrid Rion

Salon de Pinos del Manzanares jarduera multzo bat da, Madrid Rio proiektuaren barruan 125.000 metro koadro azalera bat urbanizatzeko, Marque de Monistrol pasealekuaren eta M-30eko Hegoaldeko Gunearen artean. Horri esker, Casa de Campo eta ibaiko Parque Lineal oinez edo txirringaz konektatu ahal izango dira. Pasealeku osoan zehar 8.000 metro Hydro kanal instalatu dira, fundizio nodularreko saretarekin. PPz fabrikatutako kanal horiek diseinu modularra eta sendoa dute, eta C-250 arteko karga motak jasateko pentsatuta daude, EN-1433 Arauaren arabera. Instalatzeko obra bost enpresa eraikitzailek egin dute (FOMENTO, DRAGADOS, TECSA, RAGA, FERROVIAL), eta modeloa hautatzeko hainbat faktore hartu dira kontuan, hala nola: Drainatzeko ahalmen handia; Kanal arinak dira, eta garraiatzen eta manipulatzeko errazak; Diseinu estankoko mihiztaduraz muntatuta daude, oso erraz; Fundizio nodularrean, altzairu galbanizatua, herdoilgaitzean eta plastikoan eskuragarri dauden sareta gama osoarekin bateragarriak dira. Hiriko berdegune berriak 6 kilometroko luzera hartzen du lurpean geratu



den M-30aren gainean, eta guztira 8.000 arbola aldatuko dira; horrez gain, terrazak, ariketa fisikoa egiteko guneak, egoteko lekuak eta haurrentzako guneak instalatzen ari dira. Obraren helburu nagusia da "benetako" protagonista oinezkoa izatea, eta Udalak M-30ari eta inguruneari ingurumenaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik eman nahi dion izaeraren adibiderik onena da. Azkenik, nabarmen daiteke Madril hiriarri "Golden Swing" saria eman diotela, Salon de Pinosen zehar hedatu diren haurrentzako guneengatik. Saria emateko ezaugarriak izan dira: jolasgune horiek ingurumenarekin duten harmonia, irisgarritasuna, segurtasuna eta originaltasuna, haurrei edonolako erronka eta sorpresa eskaintzan baitzaizkie, irudimena eta sormena bultzatzeko.

> *Albisteak eta gaur egungo gaiak*

ULMA Taldea

ULMA TALDEAK AMAITUTZAT JO DU BOLIGRAFOAK JASOTZEKO KANPAINA.

Joan den maiatzaren 25ean ULMA Fundazioak heziketaren aldeko boligrafoak jasotzeko kanpaina bat abiarazi zuen Oñatiko ikastetxeekin batera. Ekimenak erabateko arrakasta izan du, helburua 1.000 ale biltzea izanik, azkenean jasotako boligrafoa nabarmen handiagoa izan baita. Etagukzergatikez elkartasun proiektuarekin bat eginda, *Baietz 1.000 boligrafo jaso!* esloganarekin, ekimenaren helburua zen 1.000 boligrafo jasotzea eta, horretarako, negozio guztietan "heziketaren aldeko itsulapikoak" prestatu ziren. Heziketaren aldeko kanpaina izanik, ULMA Taldeak Oñatiko bateko eta besteko eskolak ere gonbidatu zituen parte hartzera. Horiek guztiek kanpainarekin bat egin eta guztien artean helburua nabarmen gainditzea lortu dute.



ULMA Piping



Jariakinen manipulazioko elementuei buruzko mintegia Técnicas Reunidas enpresarentzat

Orain dela gutxi mintegi bat egin da gure instalazioetan, jariakinen manipulazioko elementuei buruz, TÉCNICAS REUNIDAS enpresa espainiarreko langileentzat. Bertan, enpresaren Madrilgo bulegoetatik etorritako 15 ingeniari gazte izan ziren. Jardunaldiak nabarmen bereizitako bi zati izan zituen. Lehenengoan ULMA Pipingeko produktuen aplikazioei buruzko azalpen teorikoa eman zen, baita horien ezaugarriei buruzkoa ere. Jardunaldia Taldearen Departamentu Zentraletako eraikinean egin zen. Bigarren zatian, berriz, ULMA Pipingeko instalazioetara joan ginen, ekoizpen prozesua in situ ikusteko. TÉCNICAS REUNIDAS, TR enpresa nazioartean diharduen kontratista orokorra da, mota guztietako industri instalazioetako ingeniaritza, diseinua eta eraikuntza lantzen dituen, mundu osoko bezero ugariarentzat, horien artean daudelarik petrolio konpainia estatal (National Oil Companies edo NOCs) eta multinazional nagusietako asko, Espainiako zenbait talde handiz gain. TR etxearen jarduerarik gehiena "giltza eskura" erako industri proiektu handien exekuzioan zentratuta dago, baina bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu industri plantetako ingeniaritza, kudeaketa, martxan jartze eta operazioaren inguruan. TR enpresa liderra da Espainian sektore energetikoko ingeniartzan eta eraikuntzan, Europako lehenengoetakoa da petrolio eta gas naturaleko proiektuetan, eta munduko garrantzitsuenetakoa, findegien sektoreari dagokionez. Zalantzarik gabe, oraingoa Taldea aurkezteko aukera ezin hobea izan da, bereziki ULMA Pipingi dagokionez, TR mundu mailan erreferentziazko enpresa baita bere sektorean, eta Espainiako enpresa talde nagusietakoa.

ULMA Hormigón Polímero

ULMA Hormigón Polímerok 2010eko NAN saria irabazi du Fatxaden kategorian

Sariak ULMA polímero hormigoiairen Fatxada Aireztatuaren I+Ga, berrikuntza, kalitatea eta diseinua nabarmendu ditu, baita ingurumenari lotutako izaera ere.

ULMA Hormigón Polímerok, bere Fatxada Aireztatuaren lerroaren bitartez, 2010eko NAN Arquitectura y Construcción sariarekin nabarmendu dute. Zehazki, ULMA Fatxada Aireztatuak eraikuntzarako materialik onen gisa aukeratu dituzte, Egitura, Fatxada, Estalki eta banalerroen kategorian. Sariarekin, epaimahaiak produktuaren berrikuntza, kalitatea eta diseinua nabarmendu ditu, baita ULMA Hormigón Polímerok egindako ahaleginak ere, ingurumenari buruz material iraunkorra eta kontzientziatua sortzeko. ULMA Fatxada Aireztatuak ezaugarri estetiko nabarmenak eta abantaila eraginkorrak uztartzen ditu, isolamendu termikoari eta akustikoari dagokionez. Polímero hormigoiairen erresistentziak, berriz, aukera ematen du panel arinarin eta neurri txikikoak sortzeko. Horri esker, oso erraza da obran jartzea, eta orain arte pentsaezinak ziren lorpenak erdiesten laguntzen du. Iraunkortasun handiko produktua da, obran doitu daitekeena, eta kolore eta egitura gama zabala dauka. Fatxadako panelak fabrikatzeko, masako polímero hormigoia eta azaleko GEL-COAT geruza bat elkartzen dira. Azaleko geruza hori, pasta koloratzaileei elkartuta, erresistentzia handia du izpi ultramoreei, kutsadurari, disolbatzaileei, graffitei eta abarri buruz. Polímero



hormigoia zein Gel Coat geruzak pororik ez dutenez, ULMA fatxada mantentzeko, aldizka xaboi-urez garbitu besterik ez da egin behar.

ULMA Handling Systems

ULMA HANDLING SYSTEMS CEMAT SOUTH AMERICAREN LEHENENGO EDIZIOAN AURKEZTUKO DA.

ULMA Handling Systemsek eskariak prestatzeko prozesuen eta sistemen automatizaziorako nobedade nagusiak erakutsiko ditu CEMAT SOUTH AMERICAREN lehenengo edizioan, apirilaren 4tik 7ra, Sao Paulon (Brasil). Ekitaldian 110 enpresak parte hartuko dute, guztira 13.000 m²-ko azalera batean. Logistika sektorean munduan azotarik handiena den CeMAT Hannoverren garrantzi handiak erakusketaren formula mundu osoan egingo diren ekitaldi "erregionaletara" lekualdatzera behartu du, eta horietako bat Brasilen egingo da. CeMAT garraio eta logistikako produktuak eta zerbitzuak plazaratzeko plataformarik onena dela esaten da. ULMAk bere nobedade nagusiak paratuko ditu erakusleho horretan, eskariak automatikoki prestatzeko eta biltegitratzeko sistemiei dagokienez, eta malgutasunagatik eta modulagarritasunagatik ezagutzen den IK LOG software ospetsua ere erakutsiko du. Nazioarteko hedapenean buru-belarri diharduelarik, ULMArentzat merkatu brasildarra estrategikoa da, hazteko eta nazioartean errekonozimendua lortzeko.



> Albisteak eta gaur egungo gaiak

BA AL ZENEKIEN...

ULMA Pipingek LLOYD'S REGISTER QUALITY ASSURANCE LIMITEDek emandako OHSAS 18001 ziurtagiria jaso du, bridak eta forjako osagarriak zein planopeko forja bereziak fabrikatzeko. OHSAS 18001 ziurtagiria nazioartean laneko osasuna eta segurtasuna gestionatzeko sistemak ebaluatzeko aitortzen den zehaztapena da. OHSAS 18001 ziurtagiriak lan osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistema ebaluatzen du, lan ingurune seguruak eta osasungarriak sustatzeko helburuarekin, eta erakundeari esparru bat eskaintzen dio osasun eta segurtasun arriskuak identifikatzeko eta kontrolatzeko, istripuak gertatzeko aukerak murrizteko, legeak betetzen laguntzeko eta, oro har, errendimendua hobetzeko. Lorpen honekin, ULMA Pipingek ziurtagiri hauek ditu: ISO 9001 (Kalitatea), ISO 14001 (Ingurumena) eta OHSAS 18001 (Lan Segurtasuna eta Osasuna).



Asier Zulueta
ULMA Piping

“OHSAS ziurtagiriaren helburua epe ertainera planteatu zen, eta ahalegin handia behar izan da, bai erakunde osoaren dedikazioaren aldetik, bai ahalegin ekonomikoaren aldetik. Epe ertainerako helburua izanik, diru ahaleginik handiena egoera ekonomiko konprometitan egin behar izan zen, baina ziurtagiria lortzeko inbertsioak mantendu ziren, finean, ulertu egin baitzen prebentzioa inbertsioa dela, ez gastua. Edonola ere, OHSAS ziurtagiria lortzeak esan nahi du gure gestio sistema BALIAGARRITZAT jotzen dela, baina horrek EZ DU ESAN NAHI hobetzeko urratsik geratzen ez zaigula”.

ULMA Taldea

ULMA Fundazioak 2010eko Txostena argitaratu du

ULMA Fundazioaren bizitzaren lehenengo urte honetan antolatu diren ekintza eta ekimenak ULMA Taldeak argitaratu duen 2010eko Txostenean jaso dira



Erantzukizun Soziala ULMA Taldearen enpresa eta kooperatiba proiektuaren parte da. ULMA Fundazioaren bitartez, hainbat ekintza eta ekimen antolatzen ditu, ingurunearen garapen soziala bultzatzeko helburu nagusiarekin. 2010. urtean ULMA Fundaziotik antolatu ziren ekimenetako batzuk izan dira Merkatu Txiki Solidarioa, Interneteko ikastaroa erretiratuentzat, sare sozialei buruzko tailer bat nerabeen gurasoentzat, haurrak besoetako egiteko kanpaina bat... Ekintzak horiek hainbat interes taldetara bideratu ziren: erretiratuak, ikasle gaztetxoak, ULMA taldeko bazkideak eta langileak..., finean, ingurunerik hurbilenena. Txostena ULMA Fundazioaren webgunean eskura daiteke (<http://www.fundacionulma.com>).

ULMA Construcción

ULMA Construccíoneren MK Sistema: arrakasta segurua aplikazio bakoitzean

2009an Errumanian proiektu batean plazaratu eta gero, MK Sistema arrakastaz sartzen ari da probatu den merkatu eta nitxoetan



ULMA Construccíoneren MK Sistema aplikazio ugari dituen produktua da. Mekano moduko sistema bat da, askotariko konfigurazioak gauzatzeko aukera ematen duena: obra zibileko karga handiko egiturak, zein eraikuntzako karga arinagoetarako egiturak, betiere oinarritzko osagai berak erabiliz. Sistemaren osagaiek duten pisu arinari esker, kasurik gehienetan, neurri handiko estruktura eskuz uztartu daitezke. Horrenbestez, garabia erabilera aurretiaz tokian bertan muntatzen diren multzoak jasotzera mugatzen da. Faktore hori funtsezkoa da obra egiten ari den bitartean kostuak aurreztu ahal izateko. Merkatuari begira, salmentako zein alokairuko merkatuari begira, produktuak hainbat alderdi interesgarri eskaintzen ditu. Inbertsioaren zatirik handiena sistemaren oinarritzko elementuak eramaten du, hau da, txarrantzak, eta gainerakoa diseinatutako aplikazio bakoitzerako dauden osagarri bereziek bereganatzen dute. Beste produktu batzuekin ez bezala, horien aplikazio mota bakar batean erabili baitaitezke, MK Sistemak aukera ematen du pieza gehienak konfigurazio ugarian erabiltzeko. Ondorioz, produktuaren errentagarritasuna nabarmen handitzen da, piezei erabilera gehiago ematen zaienez, inbertsioa txikiagoa delako. MK Sistemarekin orain arte egin diren oinarritzko aplikazioak hauek dira: MK-150 eta MK-360 zinzirik, MK zertza, HMK eta VMK enkofratuak, MK mahaiak, BMK eta SBF gora egiteko kontsolak, KSP barne plataforma eta HWS babes perimetrala. Gaur egun, hainbat aplikazio garapen fasean daude. Oinarritzko aplikazio horietako batzuk, konplexutasun handiagoko



egiturak osatzen erabiltzen direnak, obra zibileko proiektuetan erabiltzen hasi dira, eta harrera handia lortzen ari dira, bai bezeroen artean, bai sare tekniko-komertzialean. Hori da, esaterako, orga mugikorren kasua: hormigoizko luzerako egiturak egiteko gai dira, hala nola zubiak eta tunelak. Enkofratua MK txarrantzetatik eta osagarri berezietatik abiatuta egindako egituraren finkatzen da, eta hormigoizko oinarri batean bermatuta egon daiteke, hormigoiztatetik datozen kargei eutsi behar badie, edo errailen gainean ibili daiteke, hormigoia egiteko hurrengo faserantz joan behar badu. Orain arte elementu hauek garatu dira: Hegaletako orga: hormigoizko zubietako hegalak egiten ditu, batez ere metalezko nukleoekin; Kareletako orga: Sarri askotan hegaletako ertzetan jarritako kareletan hormigoia botatzeko aukera ematen dute; Zubiko orga: tunel faltsuetako ganga egiten du; Enkofratua hartzeko orga: tunel edo kanal bateko enkofratuari eusteko MK egitura mugikorra. Estruktura partikularra eta neurria egin beharrean, MK Sistemak aplikazio horien irtenbidea planteatzen du, material estandarra erabiliz. Ezaugarri berezi horrek lagundu egin du produktuari eta erabilerari harrera ona egiten, eta ULMA Construcción bultzatzeko plataforma gisa erabili daiteke orain arte eskaintza lehiakorra egiteko lanak zeuden nitxoetan. Horixe da, adibidez, Polonia, Peru, Brasil eta Kanadako filialen kasua; beste batzuek ere dagoeneko esperimendu dute produktuarekin, eta gainerakoak probatzeko aukera noiz izango duten zain daude. Alegia, MK Sistemaren aurrerapena geldiezin da eta, aurki, espero da ULMA Construccíoneren produktu izarretakoa bihurtuko dela.



Portalde ULMA Taldeko langileen artean finkatu da

Portaldeko sarbideak joan den hilean 51.000 bisita inguru jaso zituen. Datu horrek berretsi egiten du ULMA Taldeko erabiltzaileen artean Portalde finkatu egin dela, tresna erabilgarri eta atsegin gisa, uneoro behar dugun informazioa arin eta erraz eskuratu ahal izateko. ULMAko lanpostuetatik Portaldeko erabiltzaileak eta pasahitzik gabe sartzeko aukera martxan jartzeak nabarmen bultzatu du proiektua, hileko sarbideen kopurua gutxi gorabehera 900 bisitarekin handitu baita. Gogoratu Portaldeko zerbitzu ugari eskaintzen dizkigula, enpresaren ikuspegitik: lankidetzak eta bilera guneak, baliabideen kudeatzailea... Eta ikuspegi sozialetik, berriz, Portalde enpresaren eta langileen arteko lotunetat hartzen da, eta horien parte hartzean eta lankidetzan oinarritzen da.



BRICOMART

BRICOMARTEK KONFIANTZA DU ULMA ORGA JASOTZAILEEN AHOLKULARITZA LOGISTIKOAREKIN.

ULMA Orga Jasotzaileak den Bricomart etxearekin, epe luzerako alokairu kontratu baten bidez. Kateak berehala 7400m²-ko azalera duen zentro berri bat irekitzea espero du Castellon, eta bertara zuzenduko dira Mitsubishi markako pilotzaileen, transpalet elektrikoaren, atzeragarrien eta korrante alternoko kontrapisuzko orga elektrikoaren azken modeloak. Bricomartek ULMAren aholkularitza logistikoa izan du modelorik egokiena esleitzeko, askotariko 12.000 produktuko stock bat biltegitzako eta manipulatzeko aplikazioetarako, horien artean eraikuntzako materiala, zurezkoa, elektrizitatearen ingurukoa, erremintak, zeramika, iturgintza, burdindegia, pintura eta drogeria. Epe luzerako alokairu kontratu horren bidez, bezeroak laguntza teknikoko zerbitzua izango du, prebentzioko mantentze lanak egiteko eta, ondorioz, matxurek eragindako geldialdiak saihestuko dira; gainera, departamentu komertzialaren eta produktukoaren arreta ere izango du, eskuratutako ekipamendu guztietan sortzen diren nobedadeak gehitzeko, eta enpresaren baliabideak ahalik eta gehien errentabilizatzeko. Bereziki bezero profesionalari zuzentzen zaiolarik, Bricomart Frantziako Adeo taldeko kidea da, eta horko kideak dira halaber Leroy Merlin eta Aki ere. Beste lau zentro ere baditu, Almeria, Sevilla, Asturias eta Valentzian, eta beste 35 Frantzian, Italian eta Polonian barreiatuta. Horien guztien eredu komertziala bi zutabetan bermatuta dago: "azkartasuna" eta "eraginkortasuna", eta ULMAk bat egiten du kontzeptu horiekin erantzun pertsonalizatuak emateko eta soluzio logistiko integrala eskaintzeko, bi aldeei balioa erantsiko dieten harreman komertzial iraunkorrek sortuz.

ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA Piping

ULMA Piping presente Kuwaiteko petrolio konpainietan

Fluidex elkarteko taldea (Jariakinak Manipulatzeko Ekipamenduen Esportatzaileen Elkarte) zazpi enpresak osatu zuten, horien artean ULMA Piping ordezkaritza, eta hainbat bilkura egin zituen Kuwaiteko sektore enpresa liderrekin: KOC (Kuwait Oil Company) eta KNPC (Kuwait National Petroleum Company). Ordezkaritzako buru Espainiak Kuwaiten duen enbaxadorea izan zen, Manuel Gomez de Valenzuela jauna. KOCekin egindako bileran, petrolio konpainiako lehendakaria den Sami F. Al Rushaidek 2020-2030 plan estrategikoa aurkeztu zuen; horren arabera, Kuwaitek egunero 4 milioi upel ekoiztea espero du (gaur egun gutxi gorabehera 3,15 milioi upel ekoizten ditu), eta gas produkzioa bikoiztea ere aurreikusi du, egunero 25 bilioi metro kubiko ekoizteraino. Kuwaitek munduko petrolio erreserben % 10 dauzka, hau da, mundu mailan laugarren postuan dago. Bigarren topaketa KNPCren egoitza nagusian egin zen, Ahmadin, eta, proiektu estrategikoen zuzendariak bertan azaldu zenez, krisiaren eraginez 2009an Kuwaiten izoztuta geratu zen megaproiektua berehala aktibatuko da: laugarren findegia eraikiko da, 15 bilioi dolarreko inbertsioarekin, eta horrekin herrialdeak petrolio fintzeko duen ahalmena egunero 600.000 upelekin handiko da. ULMA Piping KOCek eta KNPCk onartutako fabrikatzaileen zerrendetan dago eta, horrenbestez, Kuwaiten abiaraziko diren proiektuetan sartzeko aukerak ditu.



ULMA Packaging

ULMA PACKAGING ADESVA ETA TEICA ZENTRO TEKNOLOGIKOEKIN ELKARTU

DA. Adesva Huelvako nekazaritzari lotutako ekoizpen sistema garatzeko elkartea da. Irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta bertara bilduta daude Huelvako nekazaritzako elikaduraren sektorearen eta nekazaritza berriaren zerbitzu osagarrien enpresa nagusiak. Teica, berriz, sektoreko enpresen behar teknologikoak asetzeko helburuarekin diharduen zentroa da, elkarren arteko lankidetzaz sustatuz Andaluziako haragiaren sektorean bikaintasuna lortzeko. Bi lankidetzaz horiekin, ULMA Packagingek elkarrekin lan egin nahi du merkatu nitxo berriak aztertu eta garatzeko, barazki-fruituen eta haragiaren sektoreko produktuarentako gaur egungo aurkezpen moduak zabaltzeko.




ULMA Handling Systems

ULMA Handling Systemsek ekoizpen eta berrikuntza zentro berri batean inbertitu du

ULMA Handling Systemsek ekoizpen eta prototipoen zentro berri bat edukiko du Otxandion (Bizkaia) eta, bertan, proba dorre bat eta showroom gune bat ere izango ditu. Zentro berriak guztira 7.000m²-ko espazioa izango du, eta hainbat sistema logistiko eta prototipo berriak garatzera zuzenduko da, eta automatizazio logistikoko soluzio berriak ere garatuko ditu. Produktuaren helburua ULMA Handling Systemsen produkzio prozesuei balio erantsia ematea da, ekoizpenaren kostuak murriztuz eta proiektuen errentagarritasun ratioak handituz. ULMA Handling Systemseko zuzendari gerentea den Iñaki Arriolaren hitzetan, Inbertsio berriaren oinarrian dago *"ULMAren berrikuntzaren eta etorkizuneko garapenaren aldeko apustua, nolabaiteko arrisku dosi bat eta sormena ere eskatzen diguna, uztarketa hori derrigorrezkoa eta ezinbestekoa izango baitzaigu bizitzen ari garen egoeran aukera bat lortzeko"*. *"Proiektu berriari esker, gure eskaintzaren balioa handitu ahal izango dugu, eta soluzio logistikoen garapena sustatu ahal izango dugu, ULMA Handling Systemsen etorkizuneko garapenerako elementu tiratzaile gisa"*, gaineratu du Arriolak. Zentro berria konpainiak azken urteetan izan duen lan hazkundearen erakuslea da, izan ere, 2008. urtean 195 profesional izatetik, urtearen amaieran 275 izatera iritsiko da. Hasieratik bertatik, ULMA Handling Systemsek orientazio hau izan du bere zerbitzuen inguruan: alde batetik sistema automatikoen aholkularitza eta ingeniarietza, diseinu eta garapen zerbitzua, eta bestetik bezeroarekin batera lantzen duen saldu ondoko eta ingeniarietza zerbitzua.



> **Albisteak eta gaur egungo gaiak**



ULMA Hormigón Polímero

Alaitasuna, argia eta kolorea Cartagenako Maristen egoitzan

Cartagenako Egoitza Geriatriko berria ULMA polimero hormigoizko fatxada aireztatuarekin estali da. Proiektuaren arkitektoetako den Juan Gomez Acostaren arabera, sistema aukeratzeko orduan, ULMAko fatxada aireztatuaren materialaren arintasuna eta iraunkortasuna, aukera kromatikoak eta ainguraketa jarraituko sistema izan dira lehiarako abantaila nagusiak

Cartagenako (Murtzia) Anaia Maristen Egoitza Geriatriko berriko obrak amaitu berri dira. Anaia Maristen Sagrada Familia ikastetxearen ondoan eraikia, bere ezaugarrietako bat, hain zuzen ere, kokapena da. Proiektu honetan, egitasmoa egin duten Francisco Marin Hernandez eta Juan Gomez Acosta arkitektoen helburua zen anaiak leku berean kontzentratuta egotea, Maristen ikastetxearen ondoan, geletatik ikastetxeko patioa ikusteko moduan. Fatxada aireztatuak 3.600m²-ko azalera du, eta ULMA polimero hormigoizko 90 x 80 eta 60 x 80 cm-ko xaflekin estali da. Fatxadaren askotariko tonalitateari dagokionez, 6 kolore estandar erabili dira. Kolore bizitasunaren helburua eraikinaren aurpegiari ahalik eta alaitasunik handiena ematea izan da; barneko argitasunarekin, kanpoko kolorearekin eta haurren ikastetxearen ondoko kokapenarekin, gure bizi zikloaren gainbeherarako egoitza geriatrikoari buruz dagoen ideia indargabetu nahi zen, alaitasun airea emanez. Egoitzaren beste ezaugarrietakoa argiztapena da, gela bakoitzak hiru leiho baititu, argitasun handia lortzeko. Eraikinean hutsarte ugari daude seriean jarrita, eta kolore jokoak lagundu egiten du seriazioa hausten; horrenbestez, fatxadaren planoaren autonomia handitu egin da, eta dibertigarria ere bihurtu da. Juan Gomez arkitektoak fatxadarako hormigoi polimeroa erabiltzea defenditu zuen, preskripziotik bertatik obran jartzearaino. Adierazi digunez, erabakia hartzeko unean, funtsezkoak izan ziren materialaren kalitatea eta iraunkortasuna eta portaera mekanikoa, txokearekiko erresistentzia handiagoa baitauka beste material batzuekin alderatuta, eta horrek aukera ematen du

loderiak murrizteko eta arintasuna irabazteko. *“Gainera, materialak eskaintzen dituen aukera kromatikoak funtsezkoak izan ziren fatxadari joko emateko”*. Horrez gain, Juan Gomezek dioenez, ULMA fatxada aireztatuaren ainguraketa jarraituko sistemak segurtasunerako bermeak eskaintzen ditu beste etxe batzuen gunekako ainguraketarekin alderatuta, eta gai horrek bereziki kezkatzen zituen arkitektoak, obraren kokapenagatik, ikastetxe baten ondoan dagoelako. *“A posteriori, esan dezaket frogatu egin dela aukeraketa egitean asmatu egin genuela. Oso pozik geratu gara emaitzarekin, ULMAk instalaziorako eskaintzen duen zerbitzua kalitate handikoa da, eta obraren amaierako akaberan hori nabaritzen da”*. Eraikinaren portaera energetikoari dagokionez, Francisco Marinek eta Juan Gomezek diotenez, erabakia hartzeko beste arrazoietakoa bat izan zen Murtzia inguruan tenperatura aldaketak oso handiak direla eta, beraz, are garrantzitsuagoa da eraikinari isolamendu egokia ematea. *“ULMA fatxada aireztatuaren emaitza oso ona da, egiazki bikain aireztatzen du, eta barruko airearen korrantea ukitu ere egin daiteke”*. Egoitzaren ezaugarri funtzionalen artean, irisgarritasunak rol garrantzitsua jokatzen du. Eraikinak igogailu bat du, kaleko mailara arte jaisten dena. Gainera, erdisotoko espazioetan gimnasio bat eta ur gaziko igerileku klimatizatu bat daude, erabiltzaileen errehabilitazio saioetarako. Beste egoitza batzuetan ez bezala, solairu bakoitzean 200m² baino gehiagoko espazioak daude jolas jardueretarako eta, ondorioz, erabiltzaile bakoitzeko m²-en ratioa batez bestekoa baino handiagoa da.

ULMA Taldea

ULMA Taldeko bazkide eta langileen seme-alabentzako pintura lehiaketaren sari banaketaren irudia. Erdian irabazleak, beren bizikletekin: Elena Díaz de Monasterioguren (5 urte arteko kategoria) eta Eider Calvo (6-10 urteko kategoria).




ULMA Handling Systems

ULMA Handling Systemsek abiadura eta fidagarritasun logistikoa eraman du ABACUSera

Abacus, kultura eta hezkuntza produktuen eta zerbitzuen banaketan espezializatuta dagoen kooperatiba, eskariak biltegitratzeko, prestatzeko eta sailkatzeko sistema batez hornitu da bere zentro logistiko berrian, Vilanova del Camí herrian (Bartzelona), eta sistema ULMA Handling Systemsek garatua du. Azpiegitura horri esker, erakundea abangoardian kokatu da Espainiako kultura, hezkuntza eta aisialdiko ondasunen logistikari dagokionez. Hasieratik, Abacus kooperatibak eraginkortasunaren eta kideak zerbitzatzeko bokazioaren alde egin du, helburu argi batekin: famili ingurunerako, eta oro har gizarterako, kultura eta hezkuntzako produktuen banaketan erreferentzia bihurtzea, eta bazkide-bezeroen gogobetetzea lortzea. Abacuseko Teknologia eta Informazio Sistemetak zuzendaria den Alvar Pardosen arabera, arrakastaren gakoa errentagarritasun ekonomikoa eta soziala uztartzea da. Jomuga automatizazioa eta eraginkortasuna izanik, Abacusek ULMA Handling Systems hautatu zuen kide teknologikoa izateko, barne logistikarako sistema automatiko oso bat garatzeko helburuarekin. ULMAK ezarritako irtenbidean prozesu logistiko guztien automatizazioa sartzen da, hau da: merkantziaren harrera,

kalitatearen kontrola, garraioa, biltegitratzea, eskariak prestatzea (kaxen eta edukiontzien hornidura barne), egiaztatze amaierako operazioak, kaxetan sartzea eta etiketa jartzea eta fardelen amaierako sailkapena. Elementu nagusi gisa eskariak prestatzeko sistema aipa liteke: biltegia automatikoa da, eta bertan edukiontzietarako 6 transjasogailu eta garraiorako 2 zirkuitu daude, orduko 1.200 kaxako kadentzia lortzeko diseinatuta. Eskariak prestatzeko zirkuituan hainbat neurritako kartoizko kaxak zein plastikozko edukiontzia egon daitezke batera. Aldi berean, nabarmen daiteke eskariak prestatzeko sistema hiru gunere berezitueta banatuta dagoela, produktuen tipologiaren eta eskari lerroen tipologiaren arabera. Azpiegitura horri guztiari esker, egunero 870 eskari prestatu daitezke Abacusen banaketa sare osorako, eta horrek esan nahi du egunero 22.400 eskari lerro asetzen direla, 21.000 erreferentziak baino gehiagok osatutako katalogo baten gainean. Gaur egun, instalazio automatikoaren ondorioz eraginkortasunean lortutako hobekuntzak baieztatu ondoren, Abacus epe ertainera itzulketak sailkatzeko sistema baten garapena aztertzen ari da, kooperatibari alderantzizko logistikaren zirkuitu osoa hobetzea ahalbidetuko diona.



> *Albisteak eta gaur egungo gaiak*



**TOP 2011
Builder**

ULMA Construcción



BERRIKUNTZAREN SARIA MK ENKOFRATU SISTEMA UNIBERTSALERAKO. MK enkofratu sistema unibertsalak soluziorik berritzaileen saria jaso du TopBuilder lehiaketaren hirugarren edizioan. Lehiaketa eraikuntzako enpresak saritzen dira, baina baita eraikuntzaren sektorean irtenbide berritzaileak eta ekintzaileak eskaintzen dituzten IT enpresak ere. Errekonozimenduak kalitate handiko eraikuntza segurua eta iraunkorra aitortzen du. TopBuilder sariaren epaimahaia kide hauek osatu dute, besteak beste: prof. dr hab. inz. Runkiewicz Leonard –Eraikuntza Ikerketarako Institutuko–, dr hab. inz. Kazimierz Szulborski –Varsoviako Unibertsitate Teknologikoko Arkitekturako fakultatekoa–, eta Burzyńska Danuta –Builder aldizkariko erredaktore burua–. Sariak abenduaren 2an banatu ziren, Pałac Lubomirskich negozio zentroan (Varsovia), 2011ko TopBuilder galaren ospakizunaren barruan.




ULMA Taldea

Mondragonek ULMA Fundazioaren proiektua balioztatu du Praktika Korporatibo On gisa

Gizarteari Egindako Ekarpeneren Gestioa eta Komunikazioa, ULMA Fundazioaren bitartez izenburua-rekin, Mondragon Korporazioak Praktika Korporatibo On gisa balioztatu du ULMA Fundazioaren Proiektua

Mondragon Korporazioaren Praktika Onak balioztatzea esperientzia arrakastatsua errepikatzeko eta ezagutza partekatzeko mekanismo bat da. Bere helburu nagusia maila korporatiboan balio erantsia ematea da. Proiektuaren jatorrian dago ULMA Fundazioarekin lortu nahi ziren helburuak argitzeko beharra, eta batez ere ULMA Taldeak Gizarteari egiten dion ekarpenari buruzko pertzepzioa nabarmen hobetzeko. Hortik abiatuta, 2009. urtean hausnarketa sakona egin zen detektatutako gabeziak hobetzeko moduari buruz, eta ULMA eta Erantzukizun Sozialaren kontzeptua elkartzea lortzeko. Hausnarketa horren emaitza moduan, Gestio eta Komunikaziorako prozedura bat ezarri zen eta, horren bidez, ULMAk garatzen ari zen Enpresa Erantzukizun Sozialeko (EES) ekimenak sistematizatzea lortu du, eta bere Interes Taldeekin aritzeko elkarrizketarako prozedura bat ezarri du, EESko kanal berezi baten bidez (<http://www.fundacionulma.com>).

ULMA Packaging




ULMA PACKAGING ETA BERE HISTORIAKO ESKARIRIK HANDIENA. 24 enbasatze lerrotara kokatutako produktua hornitzeko soluzio bat da, lana aldi berean egiteko maila handikoa. Proiektuaren barruan sartzen da hainbat gazta mota paletetik eta kokapenetik ateratzea, eguraste gunetik manipulazio guneraino; ondoren, barne garraio eta hornidura guztia kudeatzen da, produktuak enbasatzeko flow pack makinetan, makina bertikaletan zein termokonformatzaileetan. Enbasatzeko makina horiek ia guztiak lehenago ULMA Packagingek hornitutakoak dira. Produktuak enbasatu eta gero, kokapen automatikoko gunera igarotzen dira eta, horretarako, ezinbestekoa da kaxa hutsen eta

beteen logistika guztia erabat automatizatuta egotea. Azkenik, kaxa beteak paletizatze gunean sartzen dira, etiketak jarri eta fardelak egiten dira, eta ULMA Packagingek egindako biltegitratze automatikoko sisteman sartzen dira. Finean, proiektu garrantzitsua da aspaldi ULMArengan konfiantza jarri zuen bezero batentzat; oraingoan, gainera, Taldeko hainbat Negozio elkartu dira proiektuan.

ULMA Orga Jasotzaileak

Fagor Etxetresna Elektrikoek alokairu kontratua berritu dute ULMA Orga jasotzaileekin

Fagor Etxetresna Elektrikoen etxeak konfiantza erakutsi du berriro ere ULMA Orga Jasotzaileen irtenbide logistikoetako aholkularitza eta ezarpenari dagokionez, Mitsubishi markako 50 orga jasotzaile berri gehitu baititu bere alokairu parkea berritzeko. Fagor firmak 41 orga elektriko kontrapisatu eskuratu ditu Gasteizen duen banaketa biltegirako, 8 orga atzeragarri filogidatu drive-in apalategietarako, eta 4 pilotzaile guztiz berri, alokairu erregimenean. Orain dela 10 urte baino gehiago bi enpresek duten lankidetzaren senduari esker, ULMA Orga Jasotzaileen negozioak aholkua eman dio Fagorri haren alokairuko parkea osatzen duten organ modeloei eta kopuruari buruz, Fagorren premia logistikoak sakon ezagutzetik abiatuta. Bai orga atzeragarriak, bai kontrapisatu elektrikoak, segurtasun sistemekin egokituta daude, eta osagarriak edo osagaiak dauzkate eraginkortasuna hobetzeko eta ekipamenduak helmugako espaziora eta lanera moldatzeko. Horrenbestez, orgekin pintza berezi batzuk dituzte etxetresna elektrikoak manipulatzeko, atzeragarrietako urkilen azpian bideo kamerak dituzte, eserleku birakariak ekipamenduak ateratzen laguntzeko, orga geldiaraziz kolpeak saihesten dituzten detekzio sistemak, edo osagai hidraulikoak lan egiteko presio automatikoa hautatzeko sistema bat, manipulatutako beharrek karga unitatearen araberakoa. FAGOR Etxetresna Elektrikoen eta ULMA Orga Jasotzaileen arteko lankidetzaren enpresek aholkulari logistikoak buruz duten pertzepzioaren aldaketaren erakuslea da,



azpikontratutako enpresak izatetik oraingo eta etorkizuneko proiektuetako partaideak izatera igaro baitira.

ULMA Hormigón Polímero

ULMA Fatxaden ITXITURA lerro berriak CONSTRUMAT'11 saria jaso du

ULMA Hormigón Polímero maiatzaren 16tik 21era Bartzelonan egin den Construmat '11-ren 17. edizioan presente egon da, eta 250 m²ko stand bat paratu du, ekitaldia aprobetxatuz, bere negozio lerro berria aurkezteko: **FATXADEN ITXITURA**. Itxiturako sistema autosostengatzaile multigeruza da, inguratzaile integrala osatzen duena, beharrezko isolamendu termiko eta akustikoarekin. Eraikuntza sistema arinak dira (92 kg/m² polímero hormigoirekin), lehorrean muntatuak, kanpoaldean akaberako hainbat azal jartzea ahalbidetzen dutenak eta eraikinetako instalazioen ibilbide bertikal guztiak gehitzeko aukera ematen dutenak.

Suarekiko erresistentziari, estankotasunari eta isolamendu termikoari eta akustikoari dagokienez, CTE betekizunak betetzen dituzte. Produktu honen garapenean LKSkok Fatxaden Ingeniaritza eta Aholkularitza eta ULMA Hormigón Polímero lankidetzan aritu dira. **Berrikuntza Teknologikorako CONSTRUMAT DIPLOMA-SARIAK**. Eraikuntzako sistema berriak berrikuntza teknologikoaren arloan CONSTRUMAT SARIETAN ematen diren 4 Diplometako bat lortu du, aurkeztutako 74 proposamenekin lehiatu eta gero. Aldi berean, ULMAk Fatxada Aireztatuen soluzioak aurkeztu zituen Bartzelonan, plakei buruzko proposamen erakargarri eta pertsonalizatuak, eta, horiez gain, errehabilitazioarako aurrefabrikatuen soluzioak eta drainatzeko soluzio berritzaileak ere aurkeztu zituen. ULMAk bezeroei estu lotutako salmenta indarra dauka, esperientzia luzea eta merkatuaren ezagutza zabala, eta bezeroei azkar erantzuteko ahalmena da bere "maxima".



Alberto Galdos

ULMA Agrícola gerentea



“Kolektiboaren inplikazio handiak krisialditik irteten lagunduko digu”

Lehenik eta behin, ia derrigor galdetu beharrekoa: zuen Negozioan nola ari zarete bizitzen azken urteetako egoera ekonomiko-finantzario zaila?

Azken urteetan, labore babestuen sektorea krisiaren ondorioak nozitzen ari da, eta bereziki hiru arlotan islatzen da hori: gure bezeroen inbertsio produktiboak egiteko kredituetarako baldintzak gogortu egin dira, lehenengo sektorean diru laguntzak asko murriztu dira, eta nekazaritza sektoreko prezioek behea jo dute; ondorioz, merkatuaren neurria uzkurdu egin da, eragileen kopuruari dagokionez eskaintza ia aldatu gabe mantentzen bada ere. Horren eraginez, lehiakideak erasokorragoak bihurtu dira, eta gehiago borrokatu behar dugu gazta partitzeko orduan, izan ere, atzerrian orain dela 5 urte zegoenaren % 65 dago, eta nazionalean % 40 inguru.

Negozioaren ikuspegitik, zure iritziz, zein dira ULMA Agricolak

kontrako egoera horri aurre egiteko dituen indarguneak?

Ulma Agrícola Construcción Negoziotik bereizi zenean, gure sektorea krisiaren ondorioak nozitzen ari zen dagoeneko. Bereizketaren eraginez Construcciónen geratzea erabaki zuten pertsonak ordeztuko langileak kontratatu behar izan zirenez, kontratazioa zuhertasunaren irizpidearekin egin zen, langile kopurua traumarik gabe murriztuz, 44 pertsonatik (2005. urtea) gaur egun matrizean dauden 35 pertsonaraino. Horrez gain, eta hori bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da, Ulma Agrícola osatzen dugun kolektiboaren aldetik



“ Fakturazio-zifra egonkortu beharra daukagu”

negozioarekin dagoen identifikazioa eta inplikazioa azpimarratu behar da, gaur egungo egoera gainditzen laguntzen ari baitzaigu.

Enpresari dagokionez, etorkizunera begira zein helmuga ezarri dituzue eta horiek zein negozio estrategiatan oinarrituko dira?

Fakturazio zifra egonkortu behar dugu, errentagarritasunaren atalasea gainditzeko bermea ahalbidetuko diguten mailetan, eta hortik aurrera salmentak gehiagotu behar ditugu, bi estrategia argitan oinarrituta: alde batetik, atzerriko merkatuetan hazi behar dugu, bereziki tradizionalki Ulma Agricolaren helmugako merkatuak izan diren barazkigintza eta lorezaintzaren sektorean, eta halaber hazi behar dugu merkatu nazionaleko ekipamenduetan (ureztatzeko instalazioak, klimatizazioa, automatizazioa) eta nitxo berrietan (lorenzaintzako zentroak, beirazko egiturak, biltegiak, energia berriztagarriak, etab).



Angel Sánchez

ULMA Orga Jasotzaileen gerentea

“Gure helburua negozio eredua aldatzea da”

Lehenik eta behin, ia derrigor galdetu beharrekoa: zuen Negozioan nola ari zarete bizitzen azken urteetako egoera ekonomiko-finantzario zaila?

ULMA Taldeko gainerako Negozioei ez bezala, krisiak gehiago eragiten digu, gure jarduera eremua barne merkatua delako, eta bertan 2007tik 2010era % 50 baino gehiago jaitsi delako. 2009. urtea bereziki gogorra izan zen, eta azken urtean hobekuntza txiki bat izan dugu, langile guztien ahaleginari esker emaitza ia parra izatea lortu baitugu. Une hauetan gure kezka nagusietakoa koiuntura finantzarioa da, gure negozio eredua, merkatuaren eraginagatik, salmentatik alokairura igaro baita, eta horrek finantzaketa eskatzen du, gaur egun oso urri eta garesti.

Negozioaren ikuspegitik, zure iritziz, zein dira ULMA Orga Jasotzaileak kontrako egoera horri aurre egiteko dituen indarguneak? Negozio alokatzailea gara (saltzailea baino gehiago),

azken bi urteetan sektore logistiko eta industrialeko enpresetan nabarmen sartu garena; kontuan hartu behar da sektore horiek, nazioarteko elementua duten heinean, gainerako sektoreak baino hobeto suspertzen ari direla. Horregatik, indargune nagusiak dira alokairuaren kultura izatea, eta bezeroarenganako orientazio argia izatea, batez ere gure sare komertzialean eta zerbitzuan.

Enpresari dagokionez, etorkizunera begira zein helmuga ezarri dituzue eta horiek zein negozio estrategiatan oinarrituko dira?

Orain dela gutxi ULMA Inoxtruck promozioa abiarazi genuen: bertan gure produktuaren jabeak gara eta, ondorioz, gure etorkizunarenak. Aurki Industria Baterien Birsorkuntzarako jarduera atera nahi dugu, enpresa katalan batekin partekatutako teknologiarekin, eta merkatuari ekipamenduen salmenta eskaini nahi diogu, know-howa eta nazioarteko mailako lizentziak. Horrekin

guztiarekin, gure helmugak dira balio erantsi handiagoko jarduerak garatzea eta Komertzializatzaile moduan dugun Negozio Eredua aldatzea.



“ULMA Inoxtruck produktuaren merkaturatze-kanpaina egin dugu. Produktua gurea denez, gure etorkizunaren jabe gara.”

ULMA Pippingek Forjas de Lazcano

ULMA Pippingek Forjas de Lazcao erosi du, eta hemendik aurrera ULMA Lazkao Forging deituko da. Langile guztiak mantentzeaz gain, guztira 38, merkatuan egoten jarraituko du eta, ULMA Pippingekin batera, presentzia handiagoa eta nazioarteko kokapen hobea lortuko dute.



Enpresaren egoera zailaren ondorioz, azken urteetan Sistemas Forjados de Precisión (SFP) taldearen barruan zegoen Forjas de Lazcano ixteko arrisku bizian zegoen. Azkenean ez da horrelakorik gertatu. ULMA Talde Kooperatiboko kidea den ULMA Pippingek SFP erosi du, eta ia segurutzat jotzen zen desagertzea saihestu du. Ekintza horri esker, orain dela hilabete batzuk lanik gabe geratzeko arriskuan zeuden lazkaotar askok beren lanpostuei eustea lortu dute. ULMA Lazcano Forging, lanpostuak mantentzeaz gain, enpresa biziagoa izango da ULMA Pippingekin batera, lehiakorragoa eta merkatuan hobeto kokatua. Duela zenbait hamarkadatik hona, ULMA Pippingek Bridak eta Forjako Osagarriak fabrikatzen ditu energiaren sektorerantz zuzendutako hoditeriarako. Halaber, Forjas de Lazcano ere Bridak fabrikatzen aritu zen, baina gerora jarduera horri utzi zion, urteetan zehar bide luzea egin badute ere Briden munduan, material bereziei buruz jakintza bikaina izateaz gain. ULMA Lazkao Forgingeko eta ULMA Pippingeko oinarritzko produkzioarako makineriak bateragarriak eta osagarriak dira eta, horrenbestez, emaitza gehiago eta hobeak lortuko dituzte.

erosi du

ASIER OYARBIDE ULMA Pipingeko gerentea

“Esan beharreko lehenengo gauza da SFP desagertzeko arriskuan zegoela, eta lanpostu asko galtzeko puntuan zeudela. Arrazoi hori izan zen, SFPk produktu gamari dagokionez eskaintzen zigun osagarritasunarekin batera, enpresaz arduratzeko egin genuen balorazio nagusietako bat. Eta horrela sortu zen ULMA Lazkao Forging. Dударik ez dut SFPko langile eta familientzako neurri positiboa dela, lanpostuei eustea lortu delako. Horrez gain, oso positibotzat jotzen dugu bi forjak elkarrekin merkatuan aurkeztea, Lazkaokoa eta Oñatikoa, elkar osatuz, batez besteko produkzioari eta pertsonen know howari dagokienez. Elkar indartzen dugu. Bakoitza bere aldetik, txikiegiak gara gaur egungoa bezain merkatu lehiakorrean presentzia handia lortzeko”.



EUGENIO GANDARIAS

“40 urte daramatzat lanean, beteranoena naiz. Urte zailak igaro ditugu. Orain, ULMA iritsita, guztiok sakrifizioa egin eta egoerara moldatu behar izan dugu. Baina adostasuna aho batekoa izan zen. Eskerrak eman nahi dizkiogu Joseba Agirrerri, prozesuan zehar eman digun baldintzarik gabeko laguntzagatik. Datozen urteetan egingo diren inbertsioek emango duten segurtasuna da garrantzitsuena, horrek etorkizuna ebrmatzen baitu Lazkaorentzat”.



JUAN ANTONIO GÓMEZ



“17 urterekin hasi nintzen forjan lanean, ia nire lan bizitza osoa bertan igaro dut. Egia esan, gure adinarekin, hau loteria izan da, segurtasuna ematen digulako; fabrika egoera delikatuak igarotzen ari zen, eta horregatik poztasun handiz hartu genuen ULMAren albiste”.



JOSÉ MARI ETXEBERRIA

“2000. urtean hasi nintzen bertan lanean. Enpresa mailan jaitsiera nabaritu zen, batez ere 2007. urtetik aurrera. ULMA eta Forjas de Lazcanok bazuten ordurako harremanik; biak negoziatzen ari zirela entzun genuenean, albiste ona iruditu zitzaigun. Gainera, etorkizunera begira aurrerapena esan nahi du eta, jakina, datozen belaunaldientzako segurtasuna eta bermea ekarriko ditu”.

ULMA 2.0; partekatzeko pro



Komunikazio sozialeko joera berriekin bat eginda, ULMA Taldeak denbora darama 2.0 teknologien garrantzi gero eta handiagoan oinarritutako proiektu bat lantzen eta garatzen. ULMAk Sare Sozialetan duen presentzia rol garrantzitsua jokatzeko hasi da gaur egungo testuinguru sozio-enpresarialean. Proiektuak 2.0 bokazio argia dauka, eta ULMAN partekatzeko nahi apaletik sortu da, eboluzionatzeko helburuarekin.

iektua

Proiektu integratzailea

ULMAk proiektu integratzaile bat jarri du martxan, 2.0 komunikazioan oinarrituta, jarraitzaileekin edukiak eta iritziak partekatzeko xedearekin. Proiektu hau ULMA Marka Interneten eskaintzen dituen teknologia berrietara egokitzeko beharretik sortu da (sare sozialak, microblogging, bideoetarako atariak, etab.). ULMAk Interneten duen Entzute Korporatiboa monitorizatzeko eta hobetzeko helburu argiaren aldeko apustua da eta, horretarako, elkarrizketak sortu behar dira eta edukiak partekatu. Erabiltzaileek askotariko edukiak aurkitu ahal izango dituzte: formatu digitalean emandako dokumentazio korporatiboa, argazkiak, bideoak, etab. Informazio hori guztia edonoren esku dago eta, 2.0 tresna eta aplikazioen bitartez, ULMA taldeak harreman eta interakzio etengabeak mantentzen ditu, norabide askoko komunikazioaren bitartez.

Gaur egun, ULMA Taldea hainbat sare sozialetan dago presente:

1. Issuu: lineako zerbitzua da, elektronikoki digitalizatutako materiala bistaratzea ahalbidetzen duena. ULMA Taldeak dokumentu korporatiboen katalogo moduan erabiltzen du. <http://www.issuu.com/grupoulma>

2. Vimeo: Interneteko sare sozial bat da, bideotan oinarrituta dagoena, eta ULMA Taldeak bertan ostatatzen ditu bere bideoak, hainbat hizkuntzatan, bideo historikoekin batera. <http://www.vimeo.com/ulma>

ULMA Fundazioa Sarean

ULMA Fundazioaren webgunea, *Zuretzat*, ULMA Taldeak bere fundazioaren bitartez martxan jarri duen Enpresa Erantzukizun Sozialaren proiektua komunikatzeko kanal nagusia da. Interneteko joera berriekin bat eginda, webgune horretan 2.0 tresnak implementatu dira, hala nola Facebook, Youtube, linkedIn, etab.; horrez gain, guneak bere blog propioa ere badauka, hirugarren munduko herrialdeetan boluntario proiektuetan lanean ari diren pertsonen

3. Slideshare: online katalogo bat da, erabiltzaileek ULMA Taldearen bateko eta besteko aurkezpenak ikus ditzaten. <http://www.slideshare.net/GrupoULMA/>


4. LinkedIn: negozioetara orientatutako webgunea da, eta ULMA Taldeak orri bat du bertan. Aurki, orri horretan ULMA presente dagoen sare sozial guztiak orri horretan integratuko dira. <http://www.linkedin.com/company/grupo-ulma>

5. Flickr: sareko web sozialik ospetsuena da argazkiak partekatu, antolatu eta gordetzeko. ULMA Taldeak, berrogeita hamargarren urteurrena dela eta, kontu bat sortu du web sozial horretan, argazki historiko guztiak partekatzeko. Asmoa da kontu hori argazki korporatiboen katalogo moduan erabiltzea eta publikoki biltegitzea. <http://www.flickr.com/photos/60318249@N05/collections/>

6. Twitter: microblogging gune bat da, erabiltzaileei testuko mikrosarrerak bidaltzea eta irakurtzea ahalbidetzen diena, gehienez ere 140 karaktereko luzerarekin; tweets esaten zaie. 2.0 planeko konturik berriena da, eta Taldearen albisteak hedatzeko erabiliko dugu. <http://www.twitter.com/grupoulma>

7. Web Corporativa: orain dela gutxi, ULMAk Interneten duen webgunea berritu du, eta web berria lehen aipatutako profil sozial guztiei lotzen zaie zuzenenean. <http://www.ulma.com>

Gaur egun, ULMAren orria Facebooken ere implementatu eta martxan jartzeko lanetan ari gara.



esperientzia partekatu gisa. Webgunean sartzeko orria: <http://www.fundacionulma.com>

ULMA Construccioneek Peruko fili

ULMA Encofrados Perú SAK 2001ean ekin zion jarduerari. Lima hirian dagoen plantaren bitartez, filial hau modernitatearen eta konfiantzaren erreferentzia bilakatu da Peruko eraikuntzaren merkatu lehiakorrean. Gaur egun merkatuaren % 75eko liderra da aldarnio, enkofratu eta apeoen salmenta eta alokairuari dagokionez, eta obra bakoitzerako ingeniartzako soluzioak eskaintzen ditu. Abantaila nagusietakoa departamentu teknikoaren maila eta esperientzia handia da, bezero bakoitzari bere proiektuetarako ingeniartzako soluzio bereziak eskaintzea ahalbidetzen baitio. 100 lankide baino gehiago ditu, bateko eta besteko espezialitateetan liderrak direnak, arduratsua eta beren lanarekin konprometituta daudenak. Gaitasun horien baturari esker, bezeroari obrako laguntza zehatza eskain dakiogke, gestio komertzial ongi antolatua, logistika koordinatua eta dokumentazio teknikorik onena. Filialaren xedea zerbitzua etengabe hobetzea da, bezeroekin aliantza estrategikoa ezarriz eta kalitateko zerbitzua emanez, honako

osagai hauekin: 24 orduko biltegi zerbitzua, ekipamenduen stock handia, segurtasuna eta gaitasuna, prestakuntza eta ikuskapen etengabea, eta ingeniartzako soluzio bereziak. Filialaren egikera egokiaren erakusleak dira martxan dituen obrak kopurua eta konplexutasuna. Tren elektrikoa herrialdeko lanik esanguratsuenzat jotzen da, eta 21 kilometroko biaduktu goratu baten eraikuntza da, 16 geltokirekin, egunero 300.000 bidaiari eramango dituen. Bayovar proiektua Latinoamerikako azpiegiturarik garrantzitsuenak bihurtu da fosfatoen erauzketari dagokionez. Kasu honetan, erroka 40 metroko diametroa eta 60 metroko altuera duten 2 silo eraikitzea izan zen, ULMA Construccioneeko 480 tona inguruko ekipamenduekin. Obra zibilean, Tingo zubia nabarmen daiteke, 40 m luze, Amazoniako oihanean bertan eta oso emari handiko ibai baten gainean gauzatua. Halaber, Txinako zubia, 115 m luze eta 9,6 m zabal, Peruko gobernuak errepide eta azpiegiturretan planteatu duen garapen integralaren parte da.



ala finkatu du



Peruko filialaren lanari buruzko konfiantzak ekarri du Tren Elektroaren azpiegitura osoa ULMA Construccionekeko produktuekin egitea



Bayovarreko 2 egituren eraikuntza aldi berean eta independenteki egin zenez, denbora eta kostuak aurreztu ziren



Tingo zubia eraikitzeko fase guztietan MK sistema, BRIO aldamioa eta NEVI enkofratzeko sistema erabili ziren, baita 2000 Kontsola Igoariak ere



Lurraren topografiaren ondorioz, Txinako zubian konplexutasun bereziko soluzioak erabili behar izan ziren

Obra horien ondoan aipatu behar dira Limako Armadaren zubia, Huachipako uraren tratamendurako planta edo Jockey Plaza merkataritza gunearen zabalkundea.



Armadaren zubia, Lima



Huachipako Uraren tratamendurako planta

50 ULMA, 50 urte elkarrekin



 **ULMA** 1961-2011
ULMA TALDEA

2011. urte hau urte berezia izango da gu guztiontzat. Gure historia gogoratu eta gure etorkizuna sortuko dugun urtea.



Krisi ekonomikoak eta finantzarioak zaildutako oraingoa bezalako testuinguru batean, gure berrogeita hamargarren urteurrena ospatzen ari gara. Esker on ugari eman beharko genuke 50 urte hauetara iritsi ahal izateagatik, baina, zalantzarik gabe, horietako lehena aldeaz edo moldez 50 urte hauetan ULMA proiektua gaur egun Oñatin eta ingurunean errealtatea izan dadin parte hartu eta lagundu duten pertsona guztiei dagokie. Jatorrian, hainbat gazte ekintzaileren borondate irmoa dago, 50eko urteen amaieran, ahalegin handiz eta sakrifizio pertsonala eginez, gaur egun ULMA proiektua denaren ernamuina jarri zutelarik. Hazi hura, orain, hainbat Negozio elkartzaren dituen Enpresa Talde garrantzitsu bilakatu da, nazioarteko eremuko hainbat sektoretan diharduena. Beti da beharrezkoa gogoratzea nondik gatozen, jakiteko nora goazen. Historia jasotzeak eta egiteak, kasu honetan, orain jasaten ari garen zailtasunak ULMAren ibilbideari ekin ziotenek eta jarraitu zutenek aurreko garai eta testuinguru batzuetan ere bizi izan zituztela konturatzeko balio du. Horietatik guztietatik indartuta irten gara. 50 urte hauetan zehar, asko izan dira ULMAK aurre egin behar izan dituen desafioak. 70eko hamarkadaren

hasierako urteetan, krisi indartsu batek ekonomia astindu zuen, eta horrek hein handiagoan edo txikiagoan Euskadiko arlo sozio-laboralari eragin zion eta, jakina, baita ULMAri ere. 80ko urteetan euskal industriak birmoldaketa fase bizia izan zuen, hamarkadaren erdialdeko ULMAren asalduzko etapa batekin bat eginda. Ugariak dira, halaber, kolektiboak bere historian egin behar izan dituen sakrifizioak 50. urteurren hau ospatzera iritsi ahal izateko. Proiektu komun bati lotuta, bazkideek beti bideratu dituzte beren arazoak, elkartzunez eta lan eginez aurre eginez, esfortzu indibiduala denon mesedetara jarritz. Espiritu ekintzaile eta solidario horrek, 90eko hamarkadaren amaieran, ordu arte Oñatin ezezagunak ziren enplegu mailak lortzea ahalbidetu zion. Bost hamarkadarako lan eta ahaleginaren ondoren, ULMA hainbat balio kooperatiboren gainean finkatu da, eta horrek nortasun propioa ematen dio. Ibilbide horretan guztian zehar, kontuan hartuta garapen lokalean eta enpleguaren sorreran izan duen garrantzia, ULMA erreferentzia bihurtu da Oñatin, eta ingurunea eta oñatiarren ongizatea hobetzen lagundu du.



Lehenengo kooperatibak

Gabezia sozial handiak zituen garai hartan, Oñatiko zenbait enpresatan lehenengo greba saiakerak azaleratu zirenean, hainbat gaztek enpresa bideari ekin zioten, lokal zahar batean, Talleres Ignacio Maiztegui izenarekin, orduan oso oparoa zen txokolataren industriarako mantentze lanak eta lan osagarriak egiteko. Handik urte batzuetara, 1961ean izan zen, enpresa hura Talleres ULMA SCI bihurtzea erabaki zen. Horrekin batera, Forjas de Zubillagako lau langilek sarrailagintza eta osagarrien tailer bat eskuratu zuten, batez ere beren lanpostuak Oñatin mantendu nahi zituztelako, enpresa hark bere jarduera Azkoitira eramatea erabaki baitzuen. Garai hartan balkoiak, ate metalikoak eta forjako zenbait produktu egiten hasi ziren. Pixkana-pixkana negozioa handitzen joan zen eta, 1962an, kooperatiba ofizialki eratu zen, GAITU SCI izenarekin. Ondoren, 1984 inguruan, Euskadiko Kutxako Enpresa Dibisioaren promozio gisa, Oiñakar S.Coop. sortu zen, Orga Jasotzaileen Negozioa bultzatzeko. Orduan Japoniako MITSUBISHI enpresarekin lankidetzak hitzarmena izenpetu zen, eta horrek jardueraren hasiera eta enpresa martxan jartzea ekarri zuen. Oñatin kokatzea erabaki zen, Chocolates Loyola desagertu zela konpentsatzeko. Jada 1987an, Oiñakar orduan OÑALAN Taldea izenekoan partaide egin zen, gerora ULMA Taldea izango zenean, eta kooperatibak bere negozioa handitu zuen, Daifuku etxe japoniarrarekin izenpetutako lankidetzak hitzarmenen bitartez, Biltegi Automatikoak komertzializatzeko. Handik aurrera kooperatiba berriak sortu ziren: ULMA Agrícola, OIÑAKAR, gaur egun ULMA Manutención eta ULMA Servicios de Manutención, 1984an, eta ULMA Hormigón Polímero, 1995ean, ULMA Conveyor Componentsekin batera, gaur egungo ULMA Talde Kooperatiboa osatzen dutenak.

Hastapenak

Hasieran, urte haietan Oñatin zegoen txokolataren industria oparoaren enpresa laguntzaile moduan jardun zuen; gaur egungo ULMA Packaging Negozioaren jatorria izan zen. Denbora gutxira, txiripaz, fundatzaileetako baten senide erlijioso batek Estatu Batuetan fabrikatzen ari ziren produktu baten katalogoak ekarri zituen: Aldamio Metalikoak. Azkar batean produkzio propioan integratu zen hura, eta gaur egungo ULMA Construcción Negozioa hasi zen. Makinak komertzializatzeko, ULMA marka aukeratu zen, fundatzaileetako seiren abizenen inzialekin osatuta: Pedro Ugarte (U), Esteban Lizarralde eta Julian Lizarralde (L), Isidro Mendiola eta Ignacio Maiztegi (M) eta Julian Aiastui (A). Aldamia komertzializatzeko, berriz, JEIP marka aukeratu zuten, hau da, akronimo moduan eratutako izena, sei fundatzailearen izenen inzialekin osatuta. Julian Lizarralde (J), Julian Aiastui (J), Esteban Lizarralde (E), Isidro Mendiola eta Ignacio Maiztegi (I) eta Pedro Ugarte (P).



MONTADORA DE NATA

Esta máquina, construida totalmente con materiales inoxidables, le ofrece una serie de ventajas o temerse en cuenta, como es su funcionamiento silencioso y totalmente automático. De fácil manipulación y mantenimiento, pudiendo efectuarse el desmontaje para su limpieza en un minuto.

Nuestra organización le ofrece la garantía de su servicio post-venta con recambios para toda la vida.

Características y dimensiones:
Capacidad total en litros: 4
Dimensiones de la máquina:

Laneko menu osasungarriak



Egunaren heren bat, gutxienez, lan egitera bideratzen dugunez, lantokia dalekurik onena elikadura osasungarriaren gaineko teoria eta praktika egoki garatzeko. Lanaldia mokadu eta otorduen inguruan antolatuta dago: Kaferako atsedenaldia eta hamaiketako. Une horiek aukera ematen diote enpresari langileei janari osasungarriko aukera eskaintzeko. Gaur egun langile gehienek aurkitzen duten eskaintza urruti dago elikadura osasungarriaren esanahitik, eta horrek esplikatzeko du langileek arazoak izatea egunero behar den nutrizio oreka lortzeko. Langileen zati handi batek taberna eta jatetxeek eskaintzen duten eguneko menuaren alde egiten du, menu horietako batzuek kalitate dietetikoaren

maila gainditzen ez badute ere. Jatetxeetako eguneko menuak barazkiak edo entsalada, lekaleak eta arraina hautatzeko aukera eskaini behar lukete, horiek sartu beharrekoak baitira dieta orekatuaren eta osasungarriaren printzipioei atxikiko bazaizkie. Horrez gain, zenbait herrialdeetan erabateko normaltasunez bizitzen ari da jatorduak desagertzea, SAD fenomeno hedatzen ari den bitartean ('Stuck At Desk'-en akronimoa, mahaiari itsatsita), hau da, lan inguruetik ez irtetea eta laneko mahaian jatea. Horri gehitzen zaio jatekoa ematen duten makinak freskagarri, patata frijitu, gozoki edo opil industrialez beteta daudela, eta bilera asko jada ez da kafeari laguntzeko horrelako opilik gabe ulertzen.

Prebentziozko dieta eta Dietetikako aholkuak

Hainbat toxiko industrialek, jateko eredu jakin batzuek, estresak eta hobetu daitezkeen lan baldintzek, berez, gaixotasun kronikoen agerraldia azkartzen duten arrisku faktore gisa jarduten dute (besteak beste, kardiobaskularrak, obesitatea, minbizia edo diabetesa). Dietak osasunean jokatzeko duen rola zalantza ezinezkoa da. Azken ikerketek A, E, C eta horrelako antioxidatzaileen, selenioaren eta polifenolen behar besteko kontsumoari jartzen diote arreta. Ikerketa ildo horretan, aholkua da dietan antioxidatzaileetan aberatsak diren elikagaiak sartzea; horiek ugariagoak dira kolore biziko begetaletan (zitrikoak, mahats beltza, melokotoi eta abrikotak, aran morea, fruitu lehorrak, tomate, piper gorria, kalabaza, erremolatxa eta azenarioa). Lanaren Nazioarteko Erakundeak enpresak bultzatzen ditu osasunaren aldeko zenbait ekintza praktikan jartzera. Horien artean aipa daitezke: Enpresetako eguneko menuan kalitate handiagoko elikagaiak sartzea; elikagai freskoak, hala nola fruta, barazkiak, arraina edo entsaladak, aukera osasungarriagoak diruz lagunduta, Lantokian elikagaiak eta edariak banatzen dituzten makinaren edukia arautzea, eta aukera osasungarriagoak sustatzea, horien artean fruta zukuak, azala duten fruitu lehorrak, ogitarteko begetalak, eta ura eta fruta.

MEDIKUAREN AHOLKUA



Iñaki Igarzabal, Laneko Osasuneko arduraduna ULMA Taldean

ETXETIK KANPO JATEKO AHOLKUAK

1. Jan poliki, elikagaiak dastatuz, eta saiatu ogirik ez jaten.
2. Aukeratu koiperik gutxien duten menuko platerak (erreta, plantxan, egosita...).
3. Saihestu bizigarri gehiegi eta koipea duten platerak.
4. Ahal dela hartu arrain gehiago eta haragi gutxiago.
5. Zapore edo usain fuerteak dituzten janariak ez jatea gomendatzen da, eta saihestu aurrez prestatutako elikagaiak.
6. Jan askotariko elikagaiak, baina ez kantitate handian.
7. Edan likido ugari, eta saihestu alkohola eta azukrea duten edariak.
8. Saihestu edonolako postre azukredunak, eta horien ordeztatu fruta freskoa.
8. Ez jan orduz kanpo.

ULMAren 50. urteurrena dela eta, Denboraren Kapsula bat lurperatuko da, 50 urte barru irekitzeko. Zer nahi zenuke gogoratzea ULMAri buruz, ULMAko zein informazio, objektu, bitxikeria, etab., nahi zenuke ikustea hemendik 50 urtera?



BRAULIO LÓPEZ. ULMA Orga Jasotzaileak

“Azken 50 urteetan egindako ibilbidea gogoratzea nahiko nuke”

50 urteotan egindako bide osoa gogoratzea nahi nuke, lehenengo ekimenetik (hasierako eta ondoren sartu ziren bazkideek egindako ahaleginak, sortutako enpresak eta bidean gehitu direnak) gaur egunera arte, baita 100 urte bete arte egiteko geratzen zaizkigun urratsak ere. (Taldeko negozio bakoitzaren etorkizuneko ideia guztiak). Denboraren Kapsulan sar liteke: Pergamino bat Kooperatibaren gaur egungo misioarekin eta balioekin, POGU III-ren miniatura bat, datozen 50 urteetako bilakaera ikusi ahal izateko, Mapa bat Oñatiko aireko bistarekin, Taldeko Kooperatiba bakoitza gaur egun non dagoen markatuta, 50. urteurrenari eskainitako TU Lankide berezia (564. zk.), baita BEGIRA aldizkariaren azken zenbakia ere, urteurrena aipatzen duena. Eta amaitzeko; ULMA Taldea osatzen duten pertsona guztien oparotasun eta etorkizun nahia sartzeari, Taldeko kooperatiba bakoitzeko ordezkarien eta lehendakariaren nahiekin batera. Niri neuri dagokidanez, orain dela 50 urte krisi handi bat gertatu eta orduko bazkideen ahaleginarekin eta dedikazioarekin gainditu zen bezala, nire nahia da gaur egun sufritzen ari garen krisia ere oraingo bazkideen ahaleginarekin eta dedikazioarekin gainditzea. Pertsonak, ULMA Taldeko baliorik garrantzitsuenak diren heinean, eta batez ere gazteek ULMA Taldea krisitik irteera behar dute, profesionalki garatu ahal izateko.



ION LERTXUNDI. Handling Systems

“Egunkariak, txosten ekonomikoak eta horrelakoak gordeko nituzke”

Uste dut nola edo hala gaur egun bizitzen ari garenen oroitzapena eta hori nola bizitzen ari garen gorde beharko genukeela. Zehazki, gustatuko litzaidake 50 urte barru, belaunaldi berriek gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa gogoratu ahal izatea, une honetan munduan zein gure ingurune hurbilean gertatzen ari dena. Gainera, uste dut ULMA Taldearen eta Taldeko negozioen beraien gaur egungo egoeraren oroitzapena gorde beharko genukeela, oraingo lan egiteko modua, lortutako emaitza ekonomikoak, lana ulertzeko dugun era, komunikatzeko moduak... Horren guztiaren isla gisa, “Denboraren kapsula” gorde genitzake hainbat egunkari, ULMA Taldeko txosten ekonomikoak, bideoak, argazkiak, bizipen pertsonalak kontatzen dituzten idatziak, BEGIRA eta TU LANKIDE bezalako aldizkariak, mapak... Uste dut “Denboraren kapsula” ekimen interesgarria izan daitekeela belaunaldi berriek aurrekoen historia eta iragana hobeto ulertzeko eta, horrenbestez, beren orainaldia ere hobeto ulertzeko.



ENEKO ERDOIZA. ULMA Hormigón Polímero

“Kapsula lurperatuko den lekuan zehazki bat landatuko nuke”

Hasteko, ideia primerakoa iruditzen zait. Orain “Denboraren kapsula” sartuko nituzkeen hainbat objektu eta bitxikeria zehaztuko ditut. **Fisikoki eta paperean:** Pare bat liburu paperean. Ez baitut argi orduan horrelakorik egongo ote den; Eguneko egunkariak. Hori ere ez dut-eta argi; Bonbilla bat, filamentuduna. Orduan seguru ez dela egongo, guztiak LED izango dira; Lagun Aroko txartel bat. Ez baitakit egongo den; Mugikor bat. Bateriarik gabe, bestela, urteekin azidoa turrustan botako du; Argazki kamera bat; Mp3 bat; Diskette, CD, DVD eta PenDrive bana, filmen batekin eta beste gauza batzuekin; Tabako pakete bat. Hortik seguru ez dela egongo; Botila bat ardo, edo likoreren bat; Erosketa saskiaren prezioak. Flipa egingo dute!!!; Biletak eta txanponak; Enpresako katalogoak; Fabrikako, ingurune eta jendearen argazkiak. Errebelatu motaren arabera, 50 urte iraungo du ongi edo ez; Urriagaitz, Soralue, Etxeaundi eta abarretako eguneko menuaren txartela; Fitxatze txartela; Bisita txartelak. **Formatu digitalean** (50 urte irauten duen teknologia bat lortzen badugu): Bideoan graba daiteke; Etorkizunari egindako diosala. Gazte-gazteren bat behar bada orduan oraindik lanean ariko da; Gure ustez etorkizuna nolakoa izango den erakusteko ikuspegi bat; Iragarpenen bat; Hori, bestela, paperean egin daiteke. **Esateagatik:** Kapsulari nitrogeno edo antzeko gas inerte baten atmosfera sartu beharko genioke, sartzen duguna ez dadin oxidazioagatik hondatu. Edo bestela, hutsean; Zalantzak dauzkaten Pendrive baten memoriak 50 urte iraungo duen onik, CD, DVD edo BlueRay diskoek bezala; Disko gogorrekin ere zalantzak ditut; Ideia ona iruditzen zait kapsula egun horretan bertan aldatzen dugun zehazki baten oinean jartzea, horrek seguru 50 urte iraungo du eta; Sinestezina litzateke hemendik 50 urtera ULMAko bazkideen aurpegiak ikustea, kapsulako gauzak ikusten dituztenean. Horrek ez du preziorik!!!



ANGEL ABAUNZ. ULMA Packaging

“Makinak katalogoak gordeko nituzke”

Oso argigarria litzateke makinak katalogoak gordetzea, 2011n nolako makinak egiten ziren ikusteko eta orduan zer nolako teknologia erabiltzen zen. Beste detaile interesgarri bat litzateke gaur egun Kooperatiban lanean ari diren langile guztien zerrenda gordetzea. Azkenik, mapa bat gehituko nuke, ULMA munduan dituen ezarpen guztiekin, lantegi produktiboekin zein egoitza komertzialekin.

> **profila**



Marilo Unzurrunzaga
Telefonista

Marilo Unzurrunzagak erretiroa hartuko du ULMA Construccióneko telefonanoan 37 urte baino gehiago eman eta gero. Harekin izan gara eta hau guztia kontatu digu.

Bizitza bat telefonoan, ULMAko ahotsa zara; pentsatzen dut sekretu ugari eramango dituzula zurekin... denetik entzungo zenuen... Bada, baten bat bai, eta, bai horixe, imajina ditzakezuen gauzarik sinesgaitzenak entzun ditut...

Gauzak asko aldatu dira orain dela 37 urte hasi zinenetik baina, uste duzu harremanetarako eta komunikatzeko moduak eta moldeak asko aldatu direla? 37 urte dira, eta gauzak asko-asko aldatu dira, batzuk onerako eta beste batzuk ez hainbesterako; teknologiak asko lagundu du lan hau atseginagoa izan dadin, eta, negatiboari dagokionez, kontua da orain ez

dagoela garai batean deitzen zuten pertsonekin zegoen harremana. Hasteko, orain ez da zentralitatik hainbeste dei pasatzen, eta mugikorrak, posta elektronikoak edota zuzeneko irispideak asko lagundu dute bezeroekin edo hornitzaileekin egiten diren harremanak azkarragoak izaten. Batez ere, jendearekin izan dudana harremana nabarmendu nuke. Benetako adiskideak egin ditut telefonoz, eta, are gehiago, zenbait pertsonarekin harremanetan jarraitzen dut lan harremana amaitu eta gero ere, lagun moduan. Nire unerik onenak Ordezkaritzetako jendea etortzen zenean izaten ziren, elkarrekin bazkaltzera edo afaltzera joaten ginenean. Artean gutxiago ginen, eta elkar ezagutzen genuen denek. Azken urteetan jada ez da berdin, hainbeste hazi ginen, ez nuen inor ezagutzen... Jende asko gogoratu nahi nuke, baina bereziki Arantxi Berrikano, Marisol Inda, Rafa Kortabarria eta dagoeneko ez dauden ordezkaritzetako administrari beterano guztiak... eta batez ere gure ahizpa Maite, hark ekarri baininduen ULMAra.

Zer baloratzen duzu gehien? Zein dira zure lan oroitzen onenak?

Finean, zer balantze egiten duzu ULMA eman dituzun 37 urte hauetaz? Bada, 37 urtean denetarik gertatu da: ona, txarra eta erdipurdikoa. Barruko arazoak eta krisi ekonomikoak izan ditugu, baina guztion artean gainditu ditugu, esfortzua eta sakrifizioa eginez, baina elkar hartuta. ULMAren garapena eta hazkundera bizi izan dugu, horretan partaide izatearen sentipenarekin, kolektibo honetako kide izateko sentipenarekin. Azken urteotan sentsazio hori aldatu egin da. Oso urte onak izan dira Negozioarentzat, baina oso txarrak kooperatibismorako, SA batek bezala funtzionatzen dugula ematen baitu. Irudipena daukat zuzendaritza eta enpresako gainerako elementuak urrundu egin direla; beharbada, urruntze horren oinarrian egon da erabakiak hartzea horiek zalantzak jarriko zituen eztabaida bat egin beharrik gabe. Ahaztu behar ez duguna da guztiok bazkide langileak garela eta, beraz, enplegatuek eta baita jabeak ere, eta guztiok hartu behar direla kontuan denerako, onerako eta baita txarrerako ere. Datozen urteetarako gustatuko litzaidake ikustea gure taldeko eta inguruko kooperatiba askoren

egunerokotasuna gidatu duen eta gidatzen jarraitzen duen espiritua suspertu dela: bazkideen partaidetza berreskuratzea, soldaten arteko aldeak murriztea, autokritikarako gaitasuna eta gobernu organo indartsuen osaera, zuzendaritzari enpresa salbu jartzeko, aldi berean, bazkideen benetako sentipenaren ordezkariak izanik. Horrez gain, gure zuzendariei eskatu behar zaie kolektiboarekin duten distantzia ez dezatela gero eta handiago bihurtu, igo diren zerutik jaisteko eta bazkideengana hurbiltzeko. Tira, penatuta noa azken boladan bizitzen ari garena ikusita, baina bideratuko delako esperantza ere badaukat. Dagoeneko frogatu dugu hori egiteko gai garela. Kanpotik baina oso hurbil ikusteko itxaropena daukat, aurki egoerari buelta eman diogula ikusteko. Nire ilusioa da egoera aldatzeko gauza izatea, ULMAren eta herri honen zati handi baten mesedetan.

Amaitzeko, etorkizunerako zer proiektu duzu? Bada, proiektu bakarra, horrela esan badaiteke, senarrarekin Santiago Bidea egitea da, eta orain arte bizitzen jarraitzea, lanera etorri beharrik gabe, eta hori ez da gutxi.

ERRETIROA: 2011ko urtarrilaren 1etik uztailaren 31ra ULMA Taldean erretiroa hartutakoak.



ANGEL M. ARENAZA URIBEETXEBERRIA



EUGENIO ESTEVEZ TOME



ANTONIO LETAMENDI AYASTUY



BENEDICTO LORENZO MARTÍN



JAVIER IDIGORAS GURIDI



JOSÉ LUIS FERNÁNDEZ DE GAMBOA



JOSE LUIS URIZAR VILLAR



JUAN AGUIRRE IÑURRITEGUI



JUAN AIZPEURRUTIA LIZARRALDE



JUAN IGNACIO OCHANDIANO AJURIAGUERRA




JUAN LUIS ARABAOLAZA ARREGUI



LOPE ZUAZO DEL HOYO



MARIA LUISA AZPIAZU ELORZA



PEDRO TORRES GOMEZ



SANTIAGO LUMBRERAS URMENETA



ESTANIS USANDIZAGA GALARRAGA



FCO. JAVIER LIZARRALDE ZABALETA

Eskerrik asko guztioi, eta goza dezazuela! Zorionak

> Agenda eta iradokizunak



ULMA Taldeak 50. urteurrenaren kariaz antolatutako txirrindulari martxako irudiak. Parte hartzea eta giro ona izan ziren arratsaldeko ezaugarri nagusia, eta Kirolgi fundazioak Leire Olaberria eta Asier Maeztu txirrindulari profesionalak omentzeko ere aprobetxatu zuen.

50 urteurrenko webgunea ezagutu.

Anima zaitetz eta sartu!



www.ulma50.com

